

antzerkia

■ Barakaldo

■ Mendierreka taldeak 'La Casa de Bernarda Alba' antzezlan eskainiko du Gurutzetako kultur etxean, 19:00etan.

■ Basauri

● Txamuskina taldeak 'Bibolinakeriak' antzezlan eskainiko du Social antzokian, 15:00etan.

■ Bilbo

● Noba Produccionek 'Sin Ti' antzezlan eskainiko du La Merceden, 20:00etan.

● Akusa antzerki taldeak 'Mirandolina ostalera ederra' antzezlan eskainiko du Kafe Antzokian, 20:00etan.

● Giltzizaro taldearen 'Suportis Inferorum' antzezlan Auzo Etxean, 19:00etan.

■ Eibar

● Ilargipean taldeak 'Itsasoa galduak' antzezlan eskainiko du Hezuntza Esparruko Aretoan, 15:00etan.

■ Gasteiz

● Hika antzerki taldeak Atxagaren 'Henry Bengoa Inventarium' taularatuko du Iparralde gizarte etxean, 20:00etan.

bertsolaritza

■ Iruñea

● Manolo Arozena eta Xabier Silbeira. Hizkuntza Eskolan, 19:00etan.

musika

■ Arrasate

● Anje Duhalde. Biteri eskolan, 19:00etan.

■ Azpeitia

● Musika Eskolako Erdi Mailako Ikasleen audizioa eta Ganbarako Musikaren kontzertua. Enparan dorretxean, 19:30etan.

■ Donostia

● Julia León. Lugaritz kultur etxean, 20:00etan.
● Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. Victoria Eugenia antzokian, 19:45etan.

■ Gasteiz

● Thunder, Skin eta Koma Etiliko. El Elefante Blanco aretoan.

■ Iruñea

● Txomin eta Urbil Artola. Erraldioen Txokoan, 20:00etan.
● One More Time eta Soul Paradise. Terminal tabernan, 20:00etan.
● Oskorri. EHUko Filologi, Geografi eta Historia Fakultateko Ikasgela Nagusian, 12:00etan.

Fitxa Taldea: Eric Bell Band. Lekua: Bilboko Kafe Antzokia. Eguna: 1997ko maiatzaren 10a. Jende kopurua: 150 pertsona. Iraupena: 105 minutu.



Eric Bell irlandarrak kontzertu bikaina eskaini zuen Kafe Antzokian.

Poderioz

BERROGEITA hamar urte beteko dituen Eric Bell irlandar gitarra joleak. Hala ere hamazortzi urteko mutila ematen du eszenatokian. Adin horrekin hasi zen blues taldeetan, Van Morrisonen *Them* eta *Thin*

Lizzyn parte hartu aurretik. Blues klasikoa darioa Eric Bell-i eta horretan aritu zen Bilboko ekitaldian. Arazoak izan zituen amplifikadorearekin -frogetan erabilitakoa apurtu zen- eta ez zuen astirik nahi zuen

soinua ateratzeko. Barkamena eskatu zuen hasieran eta amaieran, baina, egia esan, ez genion oztoporik soinuari. Eric Bellek futbolaren kontra borrokatu behar zuen... eta irabazle atera zen: izugarrizko emanaldia egin zuen -futbolari nagusiek jokaldi eder pare bat lotzen dute noizean behin-, talde sendo eta segurua aurkeztu zuen -futbol talde askok ez daki zer den taldearen kontzeptua-, ez zuen tranparik egin, ez zen saiatu entzulego-arbitroari adarra jotzen -oraingo futbolearen kontrakoa hain zuzen-, ez zen kezatu, ez zuen penaltiz edo karnabolaz golik sartu, ez du milioi pilo bat ko-bratzen, ez da egunkari, irrati eta teleberrietan egunero agertzen -futbolari asko bai, nahiz eta ez esan ezer-, ez da erretiratu hogeita hamar urte bete ondoren -hogeita hamar urte eman du bidean eta aurrera doa-, izerdia dario kantu bakoitzean, eta dohainiko hamabost minututako luzapena eskaini zigun -futbolarietako arbitroari lehenbailehen amaitzeko eskatzen diote-.

Eric Bell *Stumble* instrumentu hutsekoarekin hasi zen, klasiko batzuk segidan jartzeko: Albert King-en *Oh, pretty woman*, *Baby please don't go*, Amos Milburn-en *Chicken-shack boogie*, Van Morrisonen *Gloria*, *Shake your money maker*, *Hold that plane*, *Too tired...* Hor agertu ziren Thin Lizzyren klasikoak ere, *Whiskey in the jar*, *The rocker* edo emigrazioari buruzko *Irish boy*. Stratocaster zahar batez eta pedalik gabe egin zuen Bell-ek lan osoa. Berak aukeratzen zituen une bakoitzeko kantuak, berak egiten zituen solo luze, eder eta originalak, berak ligatzen zuen lehenengo letroko neskekin keinuz eta solo horien bidez. Ondoa, talde serioa izan zuen: Tony Williams baxuan eta zenbait ahotsetan -urte pilo bat daramate elkarrekin- eta Andy Golden baterian -boxeolari baten moduan jotzen zuen-. Rock uneak izan arren, bluesari dedikatu zion gaua Eric Bellek. Thin Lizzyren kantuak etorri zirenak lasai geratu ziren, batez ere Bellek Phil Lynott-i -hor goian bizi den lagunari- *The rocker* eskaini zionean. Kontzertu ugari izan dira Bilbo aldean, baina oso gutxi gitarra baten solo luzeak ekarri dituztenak. Eric Bellek eta bi lagunek poderioz bete zuten hutsune hori.

Joseba Martin

■ Leioa

● Los Chalchaleros. Leioako Ikasgela Nagusian, 12:00etan.

zinema-bideoa

■ Bilbo

● 'Boccaccio 70' filmea jatorrizko bertsioan Arte Ederretako zinematelan, 17:00etan.
● Javi Garciaeren 'Trekking Himalayan' izeneko diaporama sorta Auzo Etxean, 20:00etan.

■ Errenteria

● 'Euskalherria ekologiatik eraikiz' bideo emanaldia Reina aretoan Eguzkiren eskutik. Garikoitz Plazaolaren azalpenak ere izango dira. Ekitaldiaren ostean, meriendatxo bat eskainiko da.

hitzaldiak

■ Barakaldo

● 'Autoestima y relajación' izeneko solasaldia Zuazo kulturunean, 16:30etan.
● Gaia begetarianoak hizpide izango ditu Guillermo Basaurik Barakaldoko Begetarianoen Elkargoan.

■ Barañain

● Soldaduska izango dute hizpide Patxi Léone Kakitzateko kideak eta Jesús Urrak kultur etxean, 19:00etan.

■ Donostia

● 'Armagintza Euskal Herrian' izeneko hitzaldia eskainiko du Antonio Escalantek ONCEk Arrasate kalean duen egoitzan, 19:30etan.
● Drogen kontsumoa eztabaidagai Zapatar Etxe Okupatuan, 19:00etan. Kalamudia taldeak emango du hitzaldia.

■ Eibar

● Sendabelarrei buruzko hitzaldia eskainiko du Alfredo Elorzak Biltokian, 15:30etan eta 19:30etan.

■ Errenteria

● Duro Felguerako langileen hitzaldia Mikelazulo aretoan, 19:30etan.

■ Gasteiz

● 'Los peligros de la televisión y su influencia en los niños' mintegia Ariznabarra gizarte etxean, 19:00etan.
● 'Familias monoparentales: cuando la responsabilidad de la educación de los hijos recae sobre un solo miembro' mintegia Iparralde gizarte etxean, 15:30etan eta 17:00etan.
● 'El mando a distancia: la televisión' hitzaldia eskainiko du Lolo Ricok Euskadiko Kutxaren Hitzaldi-Aretoan, 19:30etan.
● 'Erizaintzaren eguna' hitzaldia eskainiko du Arabako Erizainen Elkargoak Araba aretoan, 17:00etan.
● Javier Elzo Sozilogiako katedradunak 'Los valores en la sociedad vasca y su evolución en los últimos años' hitzaldia eskainiko du Luís de

Ajuria aretoan, 19:30etan.

■ Legazpi

● 'Autodeterminazioa eta euskal gatazka' hizpide kultur etxean, 19:30etan. Mahainguruan, Elkarrik, Gernika Batzordeak, ABKk eta Bakea Orainek hartuko dute parte.
● 'Rehabilitazioa osasun mentalean' gaia izango du hizpide Maria Jesus Zabalok kultur etxeko areto nagusian, 15:30etan.

■ Portugalete

● 'Salud y epidemias en la selva' hitzaldia eskainiko du Connie López mediku mexikarrak Santa Clara kulturunean, 19:00etan.

ikastaroak

■ Bergara

● Sentsibilizazio ikastaroa. Heziketa Praktika Psikomotrizatean formatzeko bi urteko ikastaroa baino lehen, haurren lanean eta heziketan ari direnei zuzendutako Sentsibilizazio ikastaroa. Egunak: maiatzaren 30, 31ean eta ekainaren 1ean. Antolatzailerak: Bergarako UNEDeko Psikomotrizitate Eskola.

● Psikomotrizitate Mintegia. Gaia: Eskola, Familia, Haur Hezkuntza. Irakaslea: Marije Uranga. Bergarako U.N.E.D.en, maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean. Informazio gehiago nahi izanez gero, 761343 telefonora deitu.

■ Donostia

● Litografia teknikekin esperientziak artistentzat. Artelekuk antolatzen duen tailer honek litografia artistikoaren teknikekin esperientziak egiteko aukera bat eman nahi die pintore, eskultore, grabatzaile eta abarri. Jorratuko diren tekniken artean, honako hauek ditugu: marrazkia lapitzaz eta barraz, tinta likidoa pintzelaz eta lumaz, 'frottage'-a lapitzaz ta tintaz, urkoloreak, ortzadarrak, marra fina, spraya eta beste asko gehiago. Tailer honetan interesatuak dauden artistek, inskripzio orriaz gain, euren curriculum vitae-a eta burututako obraren kolorezko argazkiak edo diapositibak aurkeztu beharko dituzte Artelekuk. Don Herbert taileraren arduradunak aukeratuko ditu tailerreko partehartzaileak. Lehen tailerra, ekainaren 2tik 30era izango da. Bigarrena, berriz, uztaillaren 1tik 30ra. Inskripzio epea, maiatzaren 16an amaituko da. Ikastaroak 13.000 pezeta balio du.

bestelakoak

■ Gasteiz

● 'Cuentos para jugar'. Agadaren eskutik kultur etxean, 18:00etan.

■ Tolosa

● Koldo Izagirrearen 'non dago Basque's Harbour' poesia errezitaldia kultur etxean, 20:00etan.

1926

W

rui-wamba

- ✓ Eliz apaindurak
- ✓ Euskal Herriko oroigarriak
- ✓ Jaiotzak
- ✓ Olentzeroak...

Plaza Berria, 10 415 42 38
BILBO